



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

### 35. buletina (2006ko urriaren 2an argitaratua)

---

- **Laburpena:**
  1. KULTUR KUDEAKETARAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BETETZEKO KONTRATAZIOA
- **Zehaztapenak:**
  1. KULTUR KUDEAKETARAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BETETZEKO KONTRATAZIOA
- Kultur kudeaketarako goi-mailako teknikari lanpostu bat aldi baterako betetzeko kontratazioa egin beharra dago.
- **Bete beharreko baldintzak:**

Goi-mailako unibertsitate agiria edo baliokidea.
- **Balioetsiko direnak:**
  - Ikus-entzunezkoen bidezko komunikazioarekin eta / edo arte ederrekin zerikusia duten graduatuondoko ikasketak.
  - Kudeaketa artistikoan egiaztatutako esperientzia.
  - Arte garaikideko erakusketa zein arte erakustaldietan komisario gisa egiaztatutako esperientzia.
  - Ingelesa zein euskararen ezagupen egiaztatua.
- **Kontratu mota:** bitarteko funtzionarioa, programa dela eta. Iraupena: gutxienez 2 urte. Lanaldi mota: 100%. Ordutegia, programen arabera. Tarteka bidaiak egin ahal izatea. Hileko soldata gordina: 2.702,27 euro.
- **Lanpostuko zereginak:**
  - Kultur plangintza eta kultur politikak martxan jartzea egokiak diren estrategien diseinuaren bidez.
  - Jardun orokorreko planak gauzatu eta aurkeztea, dagozkion aurrekontuak barne.
  - Barneko zein kanpoko lantaldeak antolatu eta koordinatzea.
  - Erakundea ordezkatzeko eta esleitzen zaizkien antzeko erako erakundeekiko harremana izatea.
  - Ekintza, prozesua eta haren eraginaren ebaluazioaren diseinu eta jarraipena egitea.
  - Arau eta kultur prozesuak egitea eskumeneko eremuan.
  - Ekonomia lankidetzak, horien diseinua eta jarraipena ezartzea.
- Izangaien onarpena LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta 162006012638 zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzatela eskatu, 2006ko urriaren 17a arte (hori barne).

- Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.

- Hautaketa prozesuak bi zati izango ditu.

Lehenengoan bete beharreko baldintzak betetzen dituztenen artetik aurre-hautaketa egingo da, "balioetsiko direnak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, eta 10 hoberenak aukeratuko dira.

Aurre-hautaketan aukeratutako hamarrek egingo dute bigarren zatia, hots, proba praktikoa eta ondoren ahoz defendatu. Lanpostuaren zereginei buruzkoa izango da proba eta urriaren 25etik 27ra bitartean egitea dago aurreikusia.

- Proba teoriko-praktikoa egiteko onartu eta bazter utzitako pertsonen zerrendari buruzko informazioa 2006ko urriaren 20tik aurrera emango da, 010 telefonoan (945 161100 Gasteiztik kanpotik deituz gero); orobat argitaratuko da zerrenda udaletxeko iragarki taulan (Espainia plaza) nahiz udalaren web orrian. <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren 2005eko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez onetsi zen "Aldi baterako hautaketa prozesuen prozedura"rekin bat burutuko da deialdi hau. Udalaren web orrian ikus daiteke hori, <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

#### **Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.**

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

[seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org](mailto:seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org)  
[seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org](mailto:seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org)

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA**  
**FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**